
LAUAXETA'REN AZKEN IDAZKIAK (eta III)

Gogo-barruan biztuta daroat nik
barru bero iziotuaren argi ederra;
bizia baiño askatasuna dot maiteago
eta ez nintzan jaio buru-makur ibilteko.

Orregaitik nago emen bakarrik arro eta sendo
bare-bare itxaroten dot zure utsa,
zuk ni iltea erabagi al ba'dozu,
ezin izango daustazu iñoz gogo orbandu.

Zauritu nagizu! Nik espetxe gogorrean
nire izenaren zintzotasuna dot pozbide.
Zer ardura dau egunaren argia ez ikusteak
nire barruan zeruko argia ba'dot?

Zer ardura dau orma eta kizket artean
zuk niri eguzkiaren argia ta askatasuna kentzeak
nire begiak argitasun zerutarra dakusenean
.....

OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua

ZUBILLAGA'rentzat

"Gizon bizartsua eta ondo gertatua (?)"

Bizar onek estaldu eban bere eunetan
alboz nire aurpegia baretasun osoan;
bere ekaitzakaz geiago beteten nauan itxasoak
olatu baltzean nire gomutapenak uguzten dauz.
Bere begirapenak kalte dagio toki geldi bateri.
Bere samintasuna iñoz bideratu ezin dauanean,
baretasun zabala dauan kopet argia
illundu egiten da gogapenaren kiñu gogorraz.
Orrelan geratu zan marratuta nire irudia
espetxe illun baten bazterrean,
azkena, giza-fede sendoaz, itxaroten dauan artean.
"Gizon bizartsua" ez zaitu arrituko
eguzkigabeko bularra izatera doanean
lagunarentzat ezti-lorea zaintzen dauala.

Karlos adiskide: txerrenak... ez daukanean...

OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua



ZUBILLAGA'tar Karlos'entzat (52n. gelan)

Adiskide:

Nire bizitzari ordu gitxi geratzen jakozela uste dot, eta nigaz izan dozuzan arreta guztiai esker ona agertu barik geratzea ez dot nai. Biotz osoaz eskerrak damotsudaz eta ordain lez or izten dautzut Santamaria legelariaren bidez, urrezko idazkortz bat. Orixe baiño besterik ezer ez jat geratzen. Ori izango da dautsudan maitasunaren ezaugarri. Bilbao'ra eltzen zaranean, besarkada bat emon egiezu Enrike'ri ta Ebaristo'ri. Esan guztiai ni abertzalea izan nintzala eta azkenean kristiñau euskaldun lez ilten jakin nebala.

Nire ezpanetan azkenengo berbea Jesus izango da. Zeruan naukazue itxaroten. Egun baten zoaz Mungia'ra eta mosu bana emon egiezu nire gurasoai. Au be nai dot: Enrike'k anai lez begiratu eta artu dagiala Pagaldai'tar Julio, besarkadea emon dagiola Garadi'tar Iñaki'ri. Ez egiezu iñoz itzi kristiñau eta abertzale izatea. Besarkada aundi bat zure anaiari eta Garbizu'ri.

Betikoatasunera arte benetan agurtzen zaitue.

**URKIAGA'tar Esteban'ek
OLAZAR'tar Martin'ek euskeratua**